



2011ko Udazkenako Txostena

Bake-prozesuaren azterketa.



"Orain piztu da argia, eta denbora luzean zehar piztuta mantentzeko ahalegina egingo da"

2011ko Udazkenako Txostena



Aurkezpena	2
Bakeranzko prozesuaren egoera	3
Bakeranzko prozesuaren egoeraren azterketa	9
Nork bere ahotik	10
Definir la reconciliación (Pierre Hazan)	
Reconstruir el tejido social (Carlos Martín Beristain)	
Una propuesta para nuestra reconciliación (Gabriel Otalora)	
El foco y la realidad (Mirentxu Purroy)	
Lokarriren gomendioak bake prozesua bultzatzeko	16

Aurkezpena

2011ko udazkenari dagokion Behatoki Sozialaren txosten honek gaur egun dagoen bake prozesuaren pertzepzioa aztertzen du. Txostenaren oinarrian galdetegi bat dago, zeinetan azken bi hilabeteetan izan diren gertaerarik aipagarrienez galdetzen zen, besteak beste Aieteko Nazioarteko Konferentziaz eta jarduera armatua amaitutzat jotzen duen ETAREN azken adierazpenaz.

Txosten hau garai berria hasia denean landu dugu; arestian aipatutako gertakariak sakon baino sakonago markatu duten garai berria da, baina ez dezagun ahaztu, aurrez bi urte luzetan egindako lan handiaren emaitza direla, urte horietan ahalegin handiak egin baitira behar bezalako baldintzak sortzeko, bake-prozesu itzulezina abian jartze aldera. Horrenbestez, nazioarteko ekarpena da eta gizartearen jarrera tinkoa dira aipatzekoak, bai eta sektore politiko desberdinek emaniko pausoak ere, indarkeriarik gabeko agertoki bat lortze aldera; ereintza-lanaren ondorioz, udazken honetan uzta biltzen hasi gara, bake-prozesua abian jarri baita.

Oraingo honetan eta, aurreko txostenean bezalaxe, egoeraren azterketaz gain eta jaso ditugun 1.170 erantzunetan oinarritutako gomendioez gain, bakean eta bizikidetzan zer esana duten lau lagun gogoetak ere bildu ditugu. Oraingo honetan, zehazki, hauxe izan da gogoetagaia: gizartea adiskidetzeko ibilbideari heltzeko gakoak, eta lagun hauen ekarpenak jaso ditugu: Pierre Hazan, Carlos Martín Beristain, Gabriel Otalora eta Mirentxu Purroy-ren ekarpenak, alegia.

Beste behin ere, Txosten hau Lokarri lagungarri zaio euskal gizartearen zati batek bakearekin eta bizikidetzarekin zuzenean lotutako gaien inguruan zer pentsatzen duen jakiteko. Azken finean, lanabes baliosa da, bake-prozesuan garrantzia duten egintzen oihartzunak lehen eskutik jakiteko eta, lanabes baliosa, era berean, Lokarrik, herritarren sarea den heinean, etorkizunean jorratu beharko dituen erronketako batzuk taxutzen laguntzeko.

Aurrekoetan bezalaxe, Lokarrik Txosten hau gizarte nahi politika arloko eragileei helaraziko die, bai eta bere gizarte sare osoari ere.


Bakeranzko prozesuaren egoera

Galdetegiak emandako emaitzen azterketa

1. Zer iritzi duzu bakerako prozesuaren egoerari buruz?

Bakerako prozesuari eman zaion batez besteko nota 7,76 izan da. Balorazio onak, beraz, nabarmen egin du gora 2011ko udaberriko Txostenarekin alderatuta, udaberriko hartan lehen aldiz 7ko nota eman baitzitzaion eta 2011ko udako Txostenaren aldean, batez besteko nota 6,47ra jaitsi zenean. Balorazio hori zehatz-mehatz ageri diren portzentajeotan oinarritua dago.

Izan ere, galdetegiari erantzun diotenen % 94k dio bake-prozesuaren egoera ona dela (6 eta 10 arteko puntuazioa). Balorazio horren oinarria, funtsean, ETAk jarduera armatua amaitutzat jo izana da. Jendearen ustez, iragarpenak ez du itzulbiderik izango, oinarri sendoak dituelako: bat dator gizarteak indarkeria amaitzeko zuen nahiarekin; bat dator nazioarteak egindako lanarekin, Aieteko Konferentzian agertu zen bezala, eta legez kanpoko ezker abertzaleak bide baketsu hutsen alde egindako apustuarekin. Amaiur hauteskundeetan aurkeztu izanak ere balorazioa sendotu egin du, eta halako aldaketa bat sumatzen da Estatuko alderdi handienetako batzuen doinuaren. Baina gauza txar batzuk ere nabarmendu dira, eta gero eta gehiago agertzen dira, egoerari gero eta puntuazio txikiagoa eman ahala: esaterako, konfiantzarik ez dago Espainiako eta Frantziako gobernuen borondatean eta gaitasunean bake-prozesu



- 1: 2009ko Udazkena: 3,5
- 2: 2009ko Uda: 2,8
- 3: 2009ko Udazkena: 3,7
- 4: 2010eko Udaberria: 5
- 5: 2010eko Udazkena: 6,2
- 6: 2011ko Udaberria: 7,09
- 7: 2011ko Uda: 6,47
- 8: 2011ko Udazkena: 7,76


bat bultzatzeko; Gobernuaren eta ETAREN arteko elkarrizketarik eza presoei dagozkien arazoak konpontzeko; gatazka politikoa izan badela aitortu ez izana; biktima guztiak aitortu ez izana; Otegi kalean aske ez uztea; Sortu legez kanpo egotea; zauri guztiak sendatzeko egin beharreko lana. ETAK, bestalde, armak entregatu behar dituela diotenen iruzkinak ere nabarmentzekoak dira.

Egoerari 5eko nota eman diotenen iritzien artean, hauek dira nabarmentzekoak: bakea ez dela jarduera armatua amaitze hutsa; bakea lortuko bada, Espainiako eta Frantziako Estatuak aurrerapausoak eman beharko dituztela; hauteskundeek bake-prozesua baldintzatzen dutela, eta aferari itxiera faltsua ematearen beldurra, eta gauzak ongi ez egitearen beldurra.

Galdetegiari erantzun diotenen % 2k gaitz iritzi dio egoerari. Haien esanetan, ETAk emandako pausoa aintzat hartzekoa bada ere, bidea oso zaila da, Espainiako gobernuak eta alderdi handienek borondaterik ez dutelako.

2. Orain dela urte bat baino aukera gehiago dago bakea lortzeko?

Erantzunen % 95ek baiezkoa esan du. Ehuneko hori orain arte lortutako altuena da, 2011ko udako txostenean % 80 izan baitzen, eta 2011ko udaberriko Txostenean % 94, duela urtebeteko txostenekoa % 85 baino altuagoa da eta duela bi urteko txostenekoa % 33a baino nabarmen altuago. Bestalde, % 3k dio aukerak berdinak direla; beraz, nabarmen egin du behera azken txostenaren % 14ren aldean. % 2k, aldiz, ez daki / ez du erantzuten aukeraren alde egin du. Galdetegiari erantzun dioten 1.170 lagunen artean, bakar batek esan du ez dagoela orain dela urte bat baino aukera gehiago.



Baietz erantzun dutenen argudio nagusia ETAk jarduera armatua behin betiko amaitzeko iragarpena izan da. Jendearen ustez, hori itzulezina da, bi berme hauek sinesgarritasuna ematen diotelako: batetik, legez kanpo dagoen ezker abertzaleak bide baketsu hutsen alde emandako pausoez, eta, bestetik, nazioarteak gatazka konpontzeko eman duen laguntzak. Horrez gain, bi gauza nabarmendu dira bakea lortzeko aukera sendotzeari begira: euskal gizartearen eta erakunde bakezaleen bultzada, eta gobernuen jarrera, ez bailukete aukera alferrik galtzen utzi behar.

Duela urtebete zeuden aukera berdinak daudela diotenenek azpimarratu dute aldebakarreko pausok soilik eman direla, eta gobernuak ez dutela borondaterik bakerantz aurrera jotzeko. Bestalde, ez daki / ez du erantzuten aukera hautatu dutenek zalantzak agertu dituzte, Euskaditik kanpo azken gertakariei buruzko mesfidantza dagoelako, sektore erradikalenak laguntzeko prest ez daudelako (bai PPkoak bai legez kanpo dagoen ezker abertzalekoak) eta hemen dagoen gatazkak, osagai armatuaz gain, bestelako osagaiak ere badituelako.

3. Zure iritzian, betetzen al dira bake-prozesu berri bat abiatzeko baldintzak?

Bake prozesu berri bat abiarazteko baldintzak betetzen direla uste duten erantzunak erantzun guztien % 80 dira; % 3k, aldiz, uste du ez direla baldintzak betetzen. Erantzun duten lagunen % 4k ez daki ez / du erantzuten aukera hautatu du, eta % 12k, berriz, beste batzuk aukeraren alde egin dute. Baiezkua erantzun dutenen ehunekoa altuena izan da orain arte argitara emandako txosten guztien artean; izan ere, gainditu egin du 2011ko udako txosteneko % 72a; 2011ko udaberriko % 79a eta 2010eko udazkeneko % 70a. Era berean, ezezkoa eman dutenen portzentajea orain arteko ehunekorik apalena izan da.

Baldintzak bete egiten direla diotenen iritziz, egun agertoki desberdin bat dago, eta horrek bakerantz aurrera jotzeko aukera ematen du eta, era berean, bizikidetzarako eta normalizaziorako garrantzitsuak diren beste gai batzuk aztertzeko aukera eskaintzen du. Hainbat gauza daude tesi horren azpian: ETAre azken adierazpena, legez kanpo dagoen ezker abertzalearen apustua, euskal gizartearen eskakizun etengabea, aukera politiko guztiek erakundeetan egoteko duten aukera, nazioarteko ekarpena, eta gobernuek itxuraz duten jarrera irekiagoa. Dena den, bada konpondu beharreko gabeziarik: elkarrizketa erabakitzailea irekitzea, normalizaziorantz eta bizikidetzarantz jotzeko premiazko pausoak eman beharra, bake-kultura sustatzea, etab.

Ez daki / ez du erantzuten aukera hautatu dutenek diote nahasgarria dela galderan ageri den bake-prozesu berri bat terminoa; haien iritziz, izan ere, badago bake-prozesu bat, huraxe lantzen jarraitu beharra dago eta ez da beste prozesu berririk hasi behar.

Beste batzuk erantzuna aukeratu dutenek diote berradiskidetzeari ekin behar zaiola, denbora gehiago behar dela orain arteko pausoak finkatzeko, eta bestelako aurrerapausoak aldarrikatu dituzte; esaterako, ETAk armak entregatzea eta Gobernuek aldeko keinuak egitea.

4. Zer iritzi duzu joan den urriaren 17an Aieteko Jauregian egin zen Nazioarteko Konferentziari buruz?

Erantzun gehienak Nazioarteko Konferentziaren aldeko iritziak izan dira. % 56ren ustez, maila altueneko ekitaldia izan zen, eta Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa konpontzeko behararen mezua aditzera eman zuen. Erantzuna emandakoen % 26k, berriz, uste du han bildutako pertsonalitateek eta haiek ateratako ondorioek oso era esanguratsuan eragin zutela indarkeriarekin bukatzeko ETAre erabakian.

Aitzitik, % 5ek uste du ekarpen bat gehiago besterik ez dela izan, beste hainbat bezala, eta % 1ek bere aldetik uste du ez zuela ekarpenik egin eta ezker abertzaleak eta ezker abertzalearentzako antolatutako pantomima hutsa izan zela.


Erantzuna emandakoen % 12k Beste batzuk aukera hautatu du, hainbat arrazoi direla medio. Batzuek Nazioarteko Konferentziaren aldeko iritzia agertu dute, beharrezkoa baitzen era horretako ekitaldi bat egitea bake-nahia nazioartera zabaltzeko; azken emaitzak ETA presionatu egin zuen, handik hiru egunera jarduera armatuaren amaiera iragartzeko. Beste batzuek, berriz, konferentzia onuragarria izan zela aitortuta ere, pentsatzen dute Ezker Abertzalearen inguruko eszenaratze bat besterik ez zela izan.

5. Nola sentitzen zara ETAk bere jarduera armatua amaitutzat ematen duen adierazpenaren ondoren?

Galdera honetan, erantzun bat baino gehiago hautatzeko aukera izan da; beraz, portzentajeek % 100 gainditzen dute.

Erantzun dutenen % 80 itxaropentsu dago, eta erdia, ilusionatuta, ETAk bere jarduera armatua amaitutzat jotzen duen adierazpenaren berri izan ondotik. Galdetegiari erantzundakoen % 15ek esan dute zuhur daudela, eta % 12k esan du lasaituta dagoela. % 2k dio aspertuta dagoela; % 1, berriz, eszeptikoa da ETAREN adierazpenaren aurrean. Galdetegian parte hartu duten 1.170 lagunen artetik, bakar batek esan du axolagabe dagoela.

Beste batzuk aukera hautatu dutenen % 6ren artean, ikusminez, pozik eta harrিতuta daudenak nabarmentzen dira.



6. Zure iritziz, zer da hemendik aurrera egin behar dena?

Galdetegiari erantzun dioten lagunen erdiek pentsatzen dute lehenik elkarrizketa politikoa jorratu behar dela. % 32k dio beharrezkoa dela bizikidetzari buruzko akordioetara iristea. Portzentaje horietatik urrun, beste erantzun batzuk ageri dira: % 5en iritziz, ETAREN desegitea eskatu behar da, eta, % 2ren iritziz, berriz, dagoeneko bukatu da arazoa eta orain instituzio demokratikoetatik lan egiten jarraitu behar da. Galdetegian parte hartu duten lagunen artetik, inork ere ez du ezer berezirik ez erantzuna hautatu.

Beste batzuk erantzuna aukeratu dutenak % 11 izan dira, eta, gehienbat, argudio hauek erabili dituzte: alde batetik hemendik aurrera maila pertsonalean aldatu behar da, bizikidetzari berrosatzeko asmoz eta beste alde batetik biktimei barkamena eskatu beharra azpimarratu dute eta giza eskubideak errespetatzearren aldeko lana bermatzea.

7. Gobernuak ETArekin harremana hasi behar duela uste al duzu?

Erantzunen % 80k esan dute Gobernuak ETArekin harremana hasi beharko lukeela. Hori esan dutenen % 47k pentsatzen du soilik presoan eta desarmearen inguruko gaiez hitz egin beharko luketela eta % 33k dio harremanak berehalakoan hasi beharko lirakeela, hala jasotzen baitu Diputatuen Kongresuak 2005ean gai honi buruz egindako ebazpenak.

Aldiz, % 2k uste du ez litzatekeela elkarriketarik izan beharko, ETAk armak entregatu eta desegin arte, eta %1k uste du ez dagoela hitz egiteko ezer eta legea betetzea besterik ez dela geratzen.

Galdetegiari erantzun dioten % 17k Beste batzuk aukera hautatu du; gehien-gehienek pentsatzen dute harremanak aspalditik hona daudela, eta oraintxe dela argitara ateratzeko unea.

8. Zer iritzi duzu Lokarrik azken urte honetan egin duen lanari buruz?

Lokarrik egindako lanari 8,85eko nota eman zaio. Eutsi egin zaio, beraz, azken txostenetako goranzko joerari: 8,08, 2010eko udaberriari; 8,31, 2010eko udazkenean, eta 8,59, 2011ko udaberriari.

Oso ontzat jo da Lokarriren lana: esaterako, Sorturen estatutuak aurkezteko ekitaldia antolatzea, Aieteko Jauregian egindako Nazioarteko Bake Konferentzia antolatzea eta beste, baina ez da ahanzturan gelditu aurreko urteetan egindako lana, ezta Elkarrik aurretik egindakoa ere. Erantzuna eman duen jendearen iritziz, Lokarri bakearekin zerikusia duten bost arlotan nabarmendu da: herritarren parte-hartzea sustatzea; nazioarteko sare bat sortu eta mantentzea; kontzientzia kritikoa sortzea, bakearen aldeko kultura bultzatzea eta bakearen alde egindako lan isila eta ez publikoa.

Era berean, ezaugarri on hauek aitortu zaizkio Lokarriren lan moldeari: seriotasuna, diskrezioa, independentzia, lana gogoz egin izana, apaltasuna, ausardia eta sinesgarritasuna.

Egindako ekarpen batzuk

Gure motibazio sakonenak lantzea dagokigu orain, hala nola, berradiskidetzea, gure herriko jende askoren itzaropenei erantzungo dien herrialde baten bilaketa

Jada ez dago aitzakiarik elkarrizketan jardutera hitz egiteko

Badaude aurrera egiteko oinarriak, nahiz eta asko dagoen oraindik ibiltzeko

Lehen aldiz bermeeekin, badira gatazkaren konponbideari heltzeko baldintzak

Denborak beste batzuk dira eta denok, nahiz eta gauza askotan desberdinak izan, bai eta desadostasunekin ere, indarkeriarik gabe bizitzeko gai gara

Zalantzek tokirik ez duten une historikoak bizi ditugu, aukera hau baliatu beharra dago eta ez da utzi behar porrot egin dezan

Behin betiko eteteak ETAren aldetik bakeranzko bidean zegoen oztopo nagusietako bat ezabatzen du

Atzera-bueltarik gabeko bide batean sartu garela uste dudalako, alde guztiek armen bidea bere amaierara iritsi den kontzientzia dutela

Bakeranzko prozesuaren egoeraren azterketa

Hamar lagunetik bederatzik ontzat jo dute bake-prozesuaren egoera eta duela urtebete baino hobe gaudela pentsatzen dute. Uda ondoren, gauza geldia zegoen sentsazioa zabaldua zegoen (aurreko Txostenean jaso zen bezala), baina ETAk jarduera armatua amaitu duela adierazi ondoren, suspertu egin dira galdetegiari erantzun dioten pertsonen itxaropena eta poza. Eta zuhurrago daudenek ere aitortu dute amaieraren hasieran gaudela, inoiz bizi izan ez dugun uean, eta bake-prozesuak, zaila izan arren, ez duela itzalbiderik.

ETAk jarduera armatua behin betiko amaitu duela iragartzeko adierazpena: gizarteak nahi zuen pausoa, beharrezkoa zen pausoa

Indarkeria amaitzeak bakea lortu dela esan nahi ez badu ere, jendearen iritziz ezinbesteko urratsa da bake-prozesua ongi bideratzeko. Izan ere, orain errazago da bizikidetzarekin lotuta dauden beste afera batzuk lasaitasunez eta askatasunez aztertzea. Jendeak pentsatzen du aldebakarreko adierazpen hori behin betikoa dela, eta badituela hainbat berme: 1) nazioarteak indarkeriarik gabeko agertokiari eman dion babes, Aieteko Nazioarteko Konferentzian agerian gelditu zen bezala, 2) euskal gizarteak indarkeria erabiltzeari agertu dion arbuioa, eta 3) legez kanpoko ezker abertzaleak bakebide hutsezkoen alde egindako apustu tinkoa. Hiru gauza horiek batera, beraz, ezinezkoa egiten dute ETA indarkeriara itzultzea. Horrela, eta armak entregatzea gorabehera, azkenean gizartearen eskaria bete egin da.

Bi eskaera epe motzean

Jasotako erantzunetan, bi kezka- eta interes-iturri nagusi, ondoko ataletan laburbil daitezkeenak:

Elkarrizketa politiko gehiago

Baketze-bidean sakontze aldera, Espainiako Gobernuari eskatzen zaio ireki dezala elkarrizketarako bide bat ETArekin; izan ere, horixe berori erabaki zen 2005ean Diputatuen Kongresuan; bestalde, badira elkarrizketa-gai izan behar diren presoei dagozkien hainbat kontu. Eskari hauek, A-20ko hauteskunde orokorren eta Espainiako Estatuan eman den aginte-aldaketaren testuinguruan egin izan dira. Ondorioz, solaskidea orain Mariano Rajoy izango da. Ireki den garai berria, aukera berrien garai bezala ikusten da; eta aukera hauen artean aurreikusten da Madrilgo Gobernuak aipatuko bidetik zuzendutako urratsak emango dituela.

Era berean, alderdi politikoek elkarrizketa-prozesu bat irekitzeko gai izan behar dute, konpondu gabe dauden zenbait arazori konponbidea emateko eta elkarbizitzaren inguruko akordioak sustatzeko eta Kultura politikan ere aldaketa bat eman behar da.

Iraganera begira jarri etorkizuna eraikitzeko

Iraganeko eskemak gainditzeko premia nabaritzen da; garaitzaile eta garaituengan oinarritutako estrategiak, kasurako. Biolentziarik gabeko eszenatoki honetan, garrantzi handia hartu du eragindako zauriei aurre egiteko premiak, biktima guztien onarpenak eta hutsean ixteko tentaldiari eusteak. Horretarako hitz egiten hasia da berradiskidetze sozialean pentsatu beharraz.

Nork bere ahotik

Atal honetan jasotzen dira bakea, elkarbizitza eta antzeko gaietan adituak diren pertsonen ekarpenak, euren izen-abizenekin. Oraingo honetan, 2011ko udazkenari dagokion Txosten honetan honako hauen ekarpen aberasgarriak jasotzen dira: **Pierre Hazanena**, kazetaritzan prestatua, justizia trantsizionalean eta Egiarako Batzordeetan aditua eta Harremanetarako Nazioarteko Taldekoko kidea; **Carlos Maria Beristainena** dugu biktimen eta sare sozialaren berregituraketaren inguruko gaietan aditua, eskarmentu handikoa gure mugen barruan zein gure mugetatik kanpo; **Gabriel Otalora**, zuzenbidean lizentziatua, gizarte ekintzailea eta hainbat komunikabidetako ohiko laguntzailea; eta azkenik **Mirentxu Purroy** kazetariarena, militantea eta aitzindaria adierazpen askatasunaren defentsan, gure historia sozial eta politikoaren une esanguratsuetako protagonista.

Aurtengo udazkenean izan diren zenbait gertaerak bake prozesua une egingarrian jarri dute; aldi berean erakutsi dute elkarbizitzarekin lotutako hainbat gai landu beharra dagoela gure gizartean. Dagoeneko irekita dagoen eztabaida pitin bat argitze aldera, Lokarrik galdera hau egin die txosten hau osatzen lagundu duten lau adituei: [Nola ekin berradiskidetze sozialerako prozesu bideragarri bati?](#)

Jarraian, lau testuak beren egileek idatzitako hizkuntzetan.

Definir la reconciliación *

Pierre Hazan

(Miembro del Grupo Internacional de Contacto)

El término reconciliación es un concepto cargado de mucha ambigüedad. Por mi parte, defino la reconciliación como un proceso por el cual una sociedad pasa de un pasado dividido a un futuro compartido. Este proceso consiste en encontrar la forma de vivir al lado de antiguos enemigos, sin necesariamente amarles o perdonarles, ni tampoco olvidar el pasado de ninguna manera. La reconciliación apunta por tanto a la coexistencia pacífica con antiguos enemigos desarrollando con ellos el grado de cooperación necesario.

Tradicionalmente, la reconciliación entre ciudadanos enemigos con vistas a restablecer la paz cívica pasaba por la adopción de medidas de amnistía, término cuyo origen proviene del griego *amnistia*, que significa “olvido”. La amnistía, es decir, el olvido memorístico y judicial, se presentaba como necesario en el nombre de la unidad de la ciudad o de la nación restaurada.

Tras la guerra fría, el término reconciliación toma una importancia mayor en el léxico político. La cada vez mayor importancia de la retórica de los derechos humanos y del liberalismo político conforma una visión moral de las relaciones internacionales que substituye el enfoque pesimista de la Realpolitik dominante hasta entonces. Este cambio de perspectivas se explica también por el desarrollo de conflictos internos – ex-Yugoslavia, Rwanda, Burundi, Sierra Leona, Chechenia,...- marcados por políticas de limpieza étnica y crímenes de masa. Nuevas instituciones judiciales y extrajudiciales se crean a comienzos de los años 90 con el fin de restablecer la reconciliación nacional: los tribunales penales internacionales y las comisiones verdad y reconciliación.

Estos dos tipos de instituciones de justicia, una penal y la otra restauradora, confluyen en un punto fundamental: ya no es el silencio -vía amnistía- sino la expresión de la verdad sobre los crímenes lo que es percibido en adelante como indispensable para restaurar la reconciliación.

La reconciliación es concebida como un pilar esencial del proceso de paz en la salida de un conflicto. En teoría, la reconciliación va a la par con el regreso de la democracia, el establecimiento de un Estado de Derecho, la organización de elecciones libres y regulares, el desarme, desmovilización y reintegración (DDR) de los combatientes, el reconocimiento de las víctimas y la protección de los derechos humanos.

Estas medidas contribuyen en sí mismas a reforzar una nueva dinámica social. La reconciliación busca proceder a un cambio de creencias, de valores y de actitudes entre las poblaciones afectadas y a redefinir las relaciones entre grupos anteriormente divididos, para rehumanizar los miembros del ex grupo enemigo. El desafío de las políticas de reconciliación es por tanto elaborar las estrategias sociales, políticas y memorísticas que modifiquen las identidades personales y colectivas y, con ellas, las representaciones de uno mismo y del otro. Y ello con el objetivo de pasar de una lógica de exclusión y de violencia a una lógica de integración y de reconocimiento. Este proceso de elaboración progresiva de una nueva identidad colectiva participa en la consolidación de la paz, sabiendo que el proceso de reconciliación tiene que ser adaptado a la especificidad de cada sociedad.

* *Textu originala frantsesez dago*

Reconstruir el tejido social

Carlos Martín Beristain

(Especialista en cuestiones de víctimas y reconstrucción del tejido social)

-¿Para qué tocar las heridas?

Alguien le responde:

-Para qué va a ser, para curarlas.

Y la mujer añade:

-¿Pero quién se atreve?

Diálogo, en *El Silencio Roto*.

Para hablar de la reconstrucción del tejido social, la primera cuestión es tomar en cuenta dos puntos de partida: cuáles han sido esas heridas, y cuáles los mecanismos que las han hecho posibles. Las heridas tienen que ver con el impacto del dolor y el sufrimiento. El dolor no puede repararse pero sí reconocerse. Y para ello hay que superar las fracturas de la sensibilidad, las que han llevado a memorias defensivas que justifican el dolor del otro por el sufrimiento propio o invisibilizan el impacto de ciertas violaciones de derechos humanos. Se necesita cruzar al otro lado, y superar las fronteras de la empatía. Dejar de utilizar el dolor para justificar la violencia por un lado, o para evitar confrontarse con cómo se ha usado la tortura por poner dos ejemplos. En palabras de Ignatieff, sin apología, sin reconocimiento de los hechos, el pasado nunca vuelve a su puesto y los fantasmas acechan desde las almenas. Sobre todas estas cosas se tiene que decir la verdad. Para retomar esa vieja esperanza que describe John Berger: quizá si le damos nombre a todo lo intolerable, de esa conciencia surja una acción compartida.

Igualar este reconocimiento moral del sufrimiento, y la crítica a las violaciones de derechos humanos, puede ayudar a generar una conciencia común. Y eso no significa igualar los mecanismos de victimización. Sobre esas cosas llevar todo a las divisiones ideológicas pueden seguir poniéndonos en diferentes lados. Hay que centrarse en el lado humano de la experiencia, individual y colectiva, que es donde podemos reconocernos en los otros como iguales. Para ello hay que superar también otras fronteras, las del lenguaje. Demasiadas veces el lenguaje se ha utilizado como arma arrojadiza para justificar acciones (“por la democracia”, “a consecuencia del conflicto”) en lugar de para llegar a consensos básicos sobre la defensa de la vida.

La utilización política o la focalización mediática han estado presentes en este país más que en cualquier otro. En muchas situaciones de violencia la mentira sustituye a la ética. Lo que se considera bueno o malo se juzga en función de quién lo dice o de nuestros objetivos. Por ejemplo, la política que se necesita para con las víctimas es la del reconocimiento y la reparación, no la de la politización de utilizarlas como estandarte. Para ello también hay que dejar atrás el miedo, de lo que no se puede decir o hacer porque nunca es “el momento”. El miedo a expresar la diferencia, la crítica, el desacuerdo. Como Virginia Wolf en sus reflexiones sobre el feminismo contra la guerra, creo que la extrañeza es un valor en estos procesos. No reconocernos en la coacción o la mentira. No dejarnos meter en los tópicos. Atrevemos a salir del marco del grupo de referencia o de lo que se considera políticamente correcto. O de la retórica de la impotencia porque en nuestro país todo parece muy complejo. También aferrarse a las cosas que han dado cohesión a la sociedad vasca, las relaciones familiares y comunitarias aun en un contexto tan politizado. Un recurso positivo puede ser visibilizar las experiencias positivas locales, tanto de convivencia política como social, para evitar la sobrerrepresentación negativa y ejercer un papel pedagógico en la sociedad.

La superación de esas fracturas sociales en lo local no va a llevar al acuerdo directo, ni al olvido o perdón, sino más bien a la aceptación de que se puede coexistir.

Una cultura de derechos humanos es el piso común que se necesita. Esta reconstrucción es básica para pasar de un escenario de fin de la violencia, a otro de construcción de la paz, donde son claves las iniciativas de memoria colectiva que genere respeto y aprendizajes, de reconocimiento del dolor producido, medidas de humanización de la situación de los presos de ETA que han estado sometidos a leyes de excepción, y apoyo a los espacios sociales de reconstrucción de la convivencia. La mejora del clima social después del fin de la violencia de ETA ofrece condiciones favorables para hacer un proceso. Pero se necesita sensibilidad, inteligencia y compromiso para hacerlo posible.

Una propuesta para nuestra reconciliación

Gabriel Otalora

(Licenciado en Derecho)

La perspectiva real de una normalidad en paz bien merece reflexionar sobre cómo hay que gestionar esta nueva realidad que, en el mejor de los casos, debe culminar en un proceso de reconciliación como el restablecimiento de la convivencia desde el corazón (“concordia” viene de “cor, cordis”, que significa corazón). Una reconciliación que no debe quedar postergada hasta el final, aunque su logro no pueda verse en los primeros estadios, más centrados en las víctimas. Elementos clave:

En primer lugar, es preciso el abandono total de la violencia. No es posible avanzar mientras ETA no se ha disuelto ni desarmado. La amenaza latente existe. En segundo lugar, el reconocimiento de los daños causados por ETA y por el terrorismo paralelo de Estado en forma del GAL, BVE, etc. En tercer lugar, reconocimiento a todas las víctimas, sin distinciones mezquinas, pues todas merecen la misma consideración; y reparar, en lo posible, el daño causado. Por último, el acercamiento de presos y la excarcelación de enfermos graves. Este sería el primer paquete de medidas básicas que espero se produzca cuanto antes como el estadio más básico de justicia.

Pero “la justicia sin la reconciliación es inhumana” (J. Maritain). Y cualquier proceso de paz que pretenda una mínima reconciliación, siempre tendrá al perdón llamando a la puerta. Perdonar y aceptar el perdón del otro (no sé qué resulta más difícil) es un signo necesario de humanidad cuya ausencia dejaría coja nuestra convivencia: “Pedir perdón te reconcilia contigo mismo, te permite aceptarte como eres... Perdonar te libera de las cadenas del rencor y te desbloquea para iniciar un nuevo camino” (Jonan Fernández). Sólo

podemos avanzar hacia un nuevo escenario en el que el dolor y el perdón deben ser parte de la nueva realidad, aunque no pueda borrarse el pasado. Perdonar no significa olvidar, sino recordar de otra manera desde un escenario diferente que propicie espacios de paz y reconciliación entre víctimas y victimarios.

Relato común. La reconciliación también debe ahondar en todas las causas, no solo en los efectos. Y Euskadi (Hegoalde) quiere su propio relato compartido y veraz. Es preciso superar la desmemoria histórica empezando con las víctimas y acabando con la asimilación de los hechos, o al menos de una buena parte de los mismos. La reconciliación supone un ejercicio de sinceridad al solicitar el perdón -que es una acción individual, mientras que la reconciliación es cosa de dos- y de trabajo por la justicia: las tres son dimensiones esenciales en el discurso de la reconciliación, que siempre estarán en peligro, ya que resulta más fácil aceptar medias verdades, soluciones de compromiso y encubrir la venganza con una aparente justicia.

Y todo ello adobado con mucho diálogo, más allá de un mero intercambio de posiciones que, al final, no deberá excluir medidas de gracia, sobre todo en forma de indultos. Un camino espinoso que requerirá de tiempo, inteligencia y tacto para generar un nuevo escenario ético de mínimos que nos encarrile a los vascos pensando en las generaciones futuras. Para ello se requiere la involucración de los victimarios y las víctimas, los políticos que representan a la sociedad, pero también de personas de prestigio ético y experiencia en este tipo de procesos, incluida la Iglesia católica, por su vocación exigente en todo lo que huelga a consolidar el amor fraterno.

El foco y la realidad

Mirentxu Purroy

(Periodista)

Cuando un largo contencioso de una herencia familiar no se resuelve, es porque el foco de la realidad no se pone en el presente.

Las transmisiones familiares suelen arrastrar complejos problemas, repletos de historia y emociones, recuerdos y amores, rencores, agravios y desamores. Hermanas y hermanos se enfrentan por entender la propiedad de un mismo bien de manera diametralmente opuesta. Una misma realidad es percibida desde puntos de vista irreconciliables. Los acuerdos se hacen inviables, porque cada cual vive y ha vivido, recuerda y ha recordado, siente y ha sentido que lo que le pertenece, es suyo. Le corresponde.

Pero la realidad es divisible, troceable, parcelable, y se puede administrar con equidad, benevolencia y generosidad. Solo es necesario saber que hay solución, buscarla, poner el foco, iluminar bien y acertar en la diana. De manera que nadie se quedará con todo. Se administrará con justicia el lote a todas las partes.

Aunque el paisaje cotidiano vasco muestra casas solariegas, en pueblos y ciudades, casi en ruinas porque sus herederos no han llegado a un acuerdo para reconstruirlas, la mayoría hace mucho tiempo que no solo reparó los daños, sino que creó nuevos edificios.

Pero el dolor, la intensidad del sufrimiento inflingido, la profundidad de la injusticia, la prolongación del daño y la perpetuación humilladora de la violencia y el terror, tiene millares de herederos con nombres y apellidos. Unas y otros tienen su propia cronología.

Para muchos, librarse de la guerra civil y su dictadura que acumuló montones de muertos, miles, centenares de millares de víctimas aniquiladas por pensar diferente al franquismo, les costó casi toda su vida. Sin mediar justicia, memoria, ni reparación, se superpusieron sobre los montones de las anteriores muertes, las víctimas de ETA. En el horizonte terror y muerte, que junto con métodos igual de expeditivos del estado, dejaron casi sin oxígeno a la población. Ninguna buena herencia a repartir.

En cambio ahora ya se puede poner el punto de luz sobre la realidad que descubre muchos universos. Cada uno tiene su propio lenguaje. Pero un principio general se ha hecho camino: “no hay guerras justas, y si tierra abundante para vivirla en paz”. Es un momento conciliador.

Como todo bien que se desea repartir, resulta clave encomendar su administración a manos expertas en mediación, ajenas totalmente a los habitantes de Euskal Herria, territorio dolorido.

Lisa y llanamente tienen que estar libres de ataduras y prejuicios para escuchar la voz de todos y todas.

Resulta esencial que obtengan versiones personales de los hechos y las narraciones de las propias vidas. Sin interferencias. Así, quedará en manos de expertos la actualización de la justicia, la reparación, el reconocimiento y los derechos de todas las víctimas, sin quedar al albur de jurisdicciones obsoletas.

Así se irá haciendo difícil provocar demoras en las excarcelaciones, ó interceptar las travesías de auto reconocimiento de daños y sufrimientos causados a las víctimas. El reparto de salvoconductos de buena, mala o regular víctima, según el tamiz de los obstrutores de libertades ajenas, resultará inviable.

Mientras, las veladuras que han tapado y silenciado muchos contornos y formas de pensamiento vasco, lentamente van emergiendo para ocupar el sitio que les correspondía. Son las víctimas sin dibujo ni retrato. Tampoco estaban en la paleta de los grandes grupos que se reparten los colores y los méritos en la reparación de daños. Son gentes que forman parte del paisaje que siempre han estado ahí. Ahora, ellas y ellos con total sencillez están haciendo natural el encuentro hacia el entendimiento. Con el más común de los sentidos, sin que se note, hacen presente. El gran lugar de acogida para todas las generaciones.

Nork bere ahotik egindako gogoeten **ondorioak**

Atal honetan jasotako lau hausnarketek modu samur batean gizartearen berradiskidetzearen marko kontzeptuala marraztea eta prozesu honek biltzen dituen klabe, gai eta arazo batzuk edukiz hornitzea ahalbidetzen dute.

Lokarriren asmoa ez da hemen bildutako ekarpenen laburpenaegitea, baizik eta igarotzeko moduko gizartearen berradiskidetze prozesu baten egutegia presatzeko orduan aintzat hartu beharko liratekeen gai batzuk nabarmentzea.

- Berradiskidetze prozesu baten bidez lortu nahi den horizontearen definizioa
- Begirada iraganari, memoriari eta egiari
- Sufrimenduaren aintzatespena
- Nazioarteko komunitatearen betekizuna
- Biktimen betekizuna
- Instituzioen eta eragile politikoaren betekizuna
- Gizartearen betekizuna
- Justizia penala eta justizia konpontzailea
- Egiaren eta berradiskidetzearen batzordea
- Hartu beharreko neurriak pertsona presoek dagokienez
- Prozesuaren, denboren, sinergien eta erritmoen kontzeptua
- Berradiskidetze prozesu bat abian jarri aurretiko baldintzak behar diren edo ez
- Barkamena
- Pedagogiaren eta lengoaiaren garrantzia
- Harremana giza eskubideekin, demokrazia

*“Prozesu bat zeinaren bidez gizartearen iragan zatikatu batetik etorkizun partekatu batera igarotzen den”
(Pierre Hazan)*

*“Mina ezin da konpondu, baina bai aintatzetsi... Sufrimenduaren min moral hau berdintzeak, eta giza eskubideen urraketaren kritika, kontzientzia komuna sortzen lagun dezake”
(Carlos Martin Beristain)*

*“Gutxieneko berradiskidetzea nahi duen edozein bake-prozesuk beti izango du barkamena ate joka”
(Gabriel Otalora)*

*“Errealitatea zatigarria da, banagarria, partzelagarria, eta zuzentasunez, borondate onex eta eskuzabaltasunez kudea daiteke. Soilik beharrezkoa da jakitea badagoela konponbidea, bilatzea, fokua jartzea, ongi argiztatea eta ituan jotzea”
(Mirentxu Purroy)*

Lokarriren gomendioak, bake prozesua bultzatzeko

Behin bake prozesuaren Behatoki sozialaren galdetegiaren erantzunetan oinarritutako egoeraren azterketa eginda eta bertan jasotako eskakizun sozial batzuei erantzuteko gomendio batzuk azaltzeko helburuarekin, Lokarrik honako hau hausnartu du:

Bake prozesu itzulezin baterako baldintzak

Bake prozesu itzulezin baterako baldintzak gerta daitezten bi betekizun finkatu zituen Lokarrik: ETAren indarkeriaren behin-betiko amaiera eta Sorturen legeztatzea. Lehenengoa dagoeneko gertatu da, ETAk ekintza armatuaren aldebakarreko eta behin-betiko amaiera iraunkor eta egiaztagarria adierazi du. Egun legez kanpoko ezker abertzalearen sentsibilitatea ordezkatuta egon narren instituzioetan, ordezkatuko dituen alderdi politikoaren legeztatzea falta da. Hala, Lokarrik Espainiako Gobernu berriari gomendatzen dio Sorturen legeztatzea erraztu dezan, eta ez oztopatu, eta Auzitegi Konstituzionalari legeztatzearen aldeko ebazpena egin dezan ahalik eta lasterren.

Bake prozesuaren garapena

Euskal gizarteak bizi duen egungo unean, indarkeriarik gabeko egoerak nabarmendurik, erronka berriak azaleratzen dira, Espainiako, Frantziako edo Euskal Gobernuetara zein alderdi politikoei eragiten diotenak. Hitz egitea behar duten bizikidetzaren inguruko gai guzti horiei buruzko elkarrizketa lantzeko oinarriak jartzeko unea da orain. Horretarako Lokarrik Euskal Gobernuari proposatzen dio elkarrizketa eta akordio prozesu baten lidergoa har dezala, zeinak indar politiko guztiak eta herritarren partaidetza aktiboa barne hartuko dituen.

Gainera, Lokarrik gomendatzen die gobernuetara zein alderdi politikoei aintzat har ditzatela Aieteko Nazioarteko Konferentziaren gomendioak. Adierazpen eraikitzailea eta desblokeatzaile honek alderdi politiko guztiek egiteko moduko bidea deskribatzen du. Aintzat hartuz gero, bake prozesuan aurrera egiteko lagundu dezake.

Berradiskidetzea eta bizikidetzeta

Lopez lehendakariak bere plangintza zehaztu behar du eta, banakako plan edo proiektu kontraesankorretatik haratago, instituzioetatik ahaleginak biltzen saiatu akordioetara iristeko nahi dugun bizikidetzeta eta hau lortzeko pausuen inguruan. Gainera, herritarrei berradiskidetzea eta bizikidetzeta tokian-tokiko mailan lantzeko bideak eskaini behar dizkie.